




AEK-k 24. Esaera Zaharren Txapelketa egingo du apirilaren 1ean, Sopelan. Izen-ematea, barikura arte. ▶16

Getxoko Gure Esku Dago taldeak galdeketaarako data erabakiko du apirilaren 6an; aurkezpenean Liz Castro egongo da, ANCKo kidea. ▶7



hiruka

Uribe Kostako astekaria



90. zenbakia

2017ko
martxoaren 23tik
apirilaren 6ra arte

Gauerdian, zure zain

Apirilaren 5ean, 23:40ak aldera helduko da Korrika Uribe Kostara; Laukiztik sartuko da Urdulizera.

Apirilaren 6an, ordu txikitan, eskualdea zeharkatuko du; eta itsasadarra gurutzatuz Ezkerralderantz...

Erandiogoikora 21:25ak aldera itzuliko da; ostean, bidean aurrera egingo du, Iruñeraino heldu arte. ▶8-9



Zozketaz lepo doakizue HIRUKA hau; umeei, gazteek zein nagusiek baduzue zer aukeratu. HIRUKAren laguna zara?

Aste Santuari begira, lau aukera interesgarri proposatzen dizkizuegu; urrun joan barik, itzel pasatzeko. ▶11-14

Hirukira Olgetan, umeei begirako denbora-pasen txokoa aukeran duzue jolasteko, hilabete amaiera guztietan legez. ▶22-23

ADI! DATORREN ASTEAN EZ da HIRUKArik egongo; HURRENGOA, apirilaren 7an, **BARIKUAN**.



Kontuz, EAJ! Galdetzeak erantzuna dakar

Azken aldian batzuk galdetzen hasi dira; 'parte hartze' hitza lehenengoz erabiltzen hasi dira, horretara bultzatu baititugu beste batzuek. Horrek herri-tarron erabakimen ahalmenari balioa eman diezaiokeen arren, bueltan etorri dena bazterrean utzi dute. Seinei sarri egiten zaienarekin aldera dezakegu; aukerak eskaini, ostean nagusientzako erosoan, eta gurago dutena egiteko. «Pilota ala patinak?» galdetu, azkenik patinak etxeko atarian utzi, eta gutxien pisatzen duen horrekin kale-ra urteteko. Ezin dugu ahaztu baina parkera ailegatu, umeak patinak eskatu, eta pilota jaso-ko duela, eta orduan erabakimenari muzin egin dion horrek publikoki aurre egin beharko diola haserrealdi eta merezitako negarraldiari; nagusia saiaturiko da umea lasaitzen «Bihar patinak ekarriko dizkizut, laztana» baina ja zereginik ez, piztia esnatu duzu, zaintzaile estimatua. Dabordurako, jakin behar-ko zenuke galderak erantzuna dakarrela aldean, hurrengoan ez galdetu guraso «enrollatu» horietako bat zarela erakusteko, baizik seinearen erabakimena indartu nahi duzulako. Halaxe, traizionatutako ume asko bezala sentitu gara herritar asko, Udalaren aurrekontu prozesuan galdetu eta EAJk bere legegintzaldiko neurriak ziren eskakizunak baino ez onartu dituen. Gurasoek bezala, eurek ere botere hegemoniko osoa ei baitute beste hainbeste traizioa egin, eta isilarazten saiatzeko. Baina ez infrabalaratu barriro txikiena, publikoki lotsarazten jarraituko zaituelako. Bai, herritarrok ahaldundu beharrean, ahultzen jarraitzen gaituzue; adi hurrengorako baina parte hartzearen oinarri-oinarrietako bat zera da: galderak, bakoitzak gura duena dakar aldean, eta ez zuei komeni zaizuen. ◀

Getxo

Ondarretak, 50 urte

Urteurrena ospatzeko, abesbatzak CD berria eta liburua argitaratu ditu; modu berean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Areetako Ondarreta abesbatzak mendeurren erdia bete du. Urrezko ezteiak ospatzeko, ekintza ugari antolatu ditu, berbarako disko berri bat argitaratu du, eta 17 emanaldi baino gehiagotan parte hartu. Horien artean, Urrezko Ezteien kontzertu berezia eskainiko dute urriaren 27an, Bilboko Elkarte Filarmonikoan, Leioako Kantika Korala abesbatzagaz batera.

Jon Atxa Ondarreta abesbatzaren presidenteak azaldu duenez, *Ondarreta 1967-2017* izeneko oroitzapenen argitalpena Ama Mesedeetako elizako kriptan grabatu dute. Abesbatzaren historia laburbiltzen ez badu ere, diskoak gorazarre egin gura die azken 50 urte hauetan taldetik pasatu direnei eta abesbatzak duen errekonozimendu soziala izaten lagundu dutenei. 1.000 ale argitaratu dituzte, eta 8 euroan salduko dira hainbat saltokitan. Modu berean, apirilaren akabuan Pablo



Ondarreta abesbatzak 17 emanaldi eskainiko ditu, guztira, aurtten. © GETXOKO UDALA

Díaz-Guardaminok egindako *Ondarreta 50 años* liburua aurkeztuko dute. Bertan, abesbatzak bizi izan dituen aro guztien ibilbide luze eta zehatza aurkeztuko dute, argazki ugariz lagunduta. Hilabete beranduago, maiatzean, abesbatzari eskainitako zigilua eta zigilu-marka aurkeztuko dituzte, Getxoko XXXIV. Filatelia-erakusketan. Ondoren, irailaren 21ean, Areetako Mesedeetako jaietako pregoia irakurri-

ko dute. Irailaren 26an, Areetako Xake plazan ipinitako karpan, Peruko Alturas taldeagaz batera América Cantata-Misa Criolla izeneko kontzertua eskainiko dute. Azkenik, urriaren 27an, Bilboko Elkarte Filarmonikoan, urte osoan egindako ekitaldiei amaiera emango diete. Horretan parte hartuko dute Leioa Kantika Koralak eta Coral Ondarreta Abesbatzak. ◀

info+: www.coralondarreta.com

Erandio

Erandioko ikasleek 1.200 euro irabazi ahal dituzte, barikuan



ErandioztarrOn Lehiaren puntu gehien batu dituzten lau taldeak lehiatuko dira finalean.

Erandioko Euskara Zerbitzuak martxan ipinitako ErandioztarrOn Lehiaren lehenengo edizioa amaitzeaz dago. Daborduko, egin beharreko hiru probak egin dituzte udalerriko hainbat ikasle, eta horietatik puntuazio gehien batu dituzten lau taldeak final handian lehiatuko dira. Norgehiagoka hori martxoaren 24an,

barikuan, izango da Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Antolatzaileek gogoratu dutenez, finalean 1.200 euro egongo dira jokoan. ErandioztarrOn Lehiaren ekimenean parte hartu duten gazte denek 3 proba erraz eta dibertigarri gauditu behar izan dituzte, eta puntu gehien lortu dituzten lau taldeek jokatuko dute finala. ◀

Bilbon egingo dute manifestazioa Quirón ospitaleko langileek

Erandioko Quirón ospitaleko langileek protestak egiten jarraituko dute, «lan-hitzarmen duin» baten alde. Hala, euren aldarrikapenak nabarmentzeko guran, manifestazioa egingo dute hilaren 29an, eguaztenean, Bilboko erdigunean. Hurrengo egunean, eguenean, karabana-protesta egingo dute eskumaldean. Mobilizaziora deitu du ELA, CCOO eta Satse sindikatuek osatutako Langileen Batzordeak eta, iragarri duenez, protestaldi gehiago egingo dituzte «lanerako baldintza duinak lortu arte». Joan den hilaren 15ean, eguaztenean, 24 orduko lan-hustea egin zuten, eta «langileen %85ak egin zuen bat» mobilizazioagaz, batzordearen arabera. Ospitalean 250 bat behargin daude lanean zuzenean Quirónentzat; medikuek zenbait azpikontratentzat behar egiten dute, eta mobilizazioak joan den azaroan abiatu zituzten, «lan-hitzarmen duin» baten alde. ◀

Praktika ezazu!

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar!

E!
Erando
Eusko Leherketa



Getxo
bizi ezazu

Atzeko jesarlekua estreinatuta aurretik...



100 euroko erregai-txartelen zozketa egin dugu*

* 2016an azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenen artean





Bequire nago begire

**JOSU
ESNAOLA ARANGUREN**
Helduen euskalduntzean
irakasle

Sarri askotan jarrera kontua baino ez da

Gozozalea naizenez, lehengo arratsalde batean ezin izan nion eutsi Leioako gozotegi batera sartzeko tentazioari. Beti bezala, euskaraz agurtu eta eskatu nion gura nuena: txokolatzeko palmera bat. Inolako arazorik gabe hartu zuen eskatutakoa eta paperezko poltsan sartu. Kobratzerakoan, zenbatekoa erdaraz esan ostean, bere burua zuritze aldera edo, han hasi zitzaidan ni nintzela euskaraz eskatzen nion lehena, bera Sestaokoa dela eta ez dakiela euskaraz, bere seme-alabek baietz, badakitela.

Harrituta atera nintzen kalea. Oso berba gutxi behar izan zituen argi eta garbi agertzeko zein zen bere jarrera, berea eta adin batetik gorako erdal hiztun askorena: nik neurea egin dut, seme-alabek ikasi dute, niri ez eskatu gehiago. Baita euskaldun askorena ere: nik badakit euskaraz eta erabiltzera behartuta ikusten badut neure burua erabiltzen dut; baina espainolez ere badakit eta erosoagoa baldin bazait espainolez jardutea ez daukat inolako eragozpenik, zertarako egingo diot euskaraz ez badakit ulertuko ote duen?

Zorionez, tarteka, bestelako jarrera agertzen duen jendea ere egokitzen zaigu parean. As-tean behin Berbaldun talde batekook kafea hartzera joaten garen tabernan, zenbaitetan, neska atzeritar bat aritzen da zerbitzari, Europa ekialdeko herrialderen batekoa itxurak eta hizkerak salatzen dutenez. Guk euskaraz eskatzen diogu eta berak irribarretxo ezta ezpainenetan duela hartzen gaitu. Behin baino gehiagotan esan digu eskertzen duela guk berari euskaraz egitea, gutxika-gutxika bada ere, modu horretan euskara apur bat ikasiko duela-eta.

Zer esango dizuet, bada, askotan kanpokoak uso eta etxe-koak otso. Eta zuk nola jokatzeko duzu? Zein da zure jarrera? ◀

Leioa



Gimnasioaren etorkizuneko kudeaketa teknikariakaz landuko du Udal Gobernuak. © LEIOAKO UKI

Sakonetan kudeaketa aldatzea eskatu dute

Sakoneta kiroldegiko gimnasioaren egoera «prekarioa» dela salatu du Leioako EH Bilduk, «gimnasioa kudeatzeko erabilitako ereduak huts egin du, kudeaketaz arduratutako enpresak etekin handiak lortzen dituen bitartean, gimnasioa egoera larrian dago». Euren ustez, «beharezkoak diren inbertsioak» egiteko beharra dago. Modu berean, kudeaketa-eredua aldatzea proposatu dute: Udalak berak kudeaketa egitea gura

dute. Iban Rodríguez alkateorde jeltzaleak gogorarazi du kritika horiek orain dela urte bi egin zituztela, eta orduan erantzun zietela; ziurtatu du Udal Gobernuak Sakonetaren egoera aztertzen dabilela. «Bere momentuan Leioarentzat ona zen kontratua» indarrean dagoela nabarmendu du. Ostera, ordutik hona egoera aldatu egin dela uste du; horregatik, udan esleipena amaituko dela baliatuta, kudeaketa «egokiena» zehaztu gura du. ◀

Zinegoak festibalak Leioa eta Sopela bisitatuko ditu

Zinegoak gaylesbotrans nazioarteko Zinema eta arte eszenikoen jaialdia Uribe Kostan izango da datozen egunotan eta asteotan. Hala, martxoaren 29an eta 30ean Leioan izango da festibala; apirilaren 7an, Sopelan. Kultur Leioan, lehenengo egunean Euskal Herriko eta Europako honako film laburrak ikusi ahal izango dira: *¡No es nada!*, *#Not guilty*, *Ana se intoarce*, *Grávido*, *Gabber lover* eta *Oh-be-joyful*; saio bera errepikatuko dute Sopelan. Bigarren egunean, *Oriented* film luzea proiektatuko dute. Israelen eta Erresuma Batuen arteko koproduzioak mutil batzuen historia kontatzen du: unibertsitate tituluak dituzte, modernoak dira, eta erakutsi gura dute belaunaldi berri bat ordezkatzeko dutela; Khader, Fadi eta Naeem lagunek ez dute israeldar pasaportetik, baina, edozer konturen gainetik, palestinarizat dituzte euren buruak. Begetariano, ateo, feministak eta, batez ere, gayak dira. Saio denak 20:00etan hasiko dira; sarrera doakoa da. Leioan, gonbidapena eskatzea beharrezkoa da. ◀

Eguenean SPRIren jardunaldi bat izango da Mendibilen

Leioako Behargintzak udalerriko Lenpresak gonbidatu ditu SPRI taldearen diru-laguntzen berri zehatza emateko. Ekitaldia egunean egingo dute, hilaren 23an, Mendibile jauregian, goizeko 09:30etik aurrera. Bertan, enpresen hazkunde ekonomikoa bultzatzeko laguntzak azalduko ditu Josu Ocariz SPRIko Enpresa Transformazioaren zuzendariak. ◀

Sopela

Sopelarin bulegoa lekuz aldatuko dutela salatu du EH Bilduk

Sopelako EH Bilduk zabaldu du Udal Gobernuak Larrabasterrako Sopelarin bulegoa salduko diola Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateari; herritarren arretarako udal-bulegoa da Sopelarin. Koalizioak dioenez, Urgitxietako lokala tasatzea eskatu zuen Gontzal Hermosilla alkatea; oposizioak eta udal-beharginek «kasualitatez» izan dute horren berri, tasatze-lanen fakturagatik. Salatu dute «Uribe Kostako Mankomunitatearen baldintzak hobetzeko, udal-instalazioak okerragotu» eta urrunduko dituztela; ziurtatu dute udal-bulegoa Loiola Ander Deuna kalera lekualdatuko dela, Turismo Bulegoagaz batera. Hermosillaren arabera, «azkenean salmenta burutuko bada, erabiltzaileek zerbitzu berdina jasoko dute, ez dute inolako kalterik jasango. Udalaren lehentasuna egun eskaintzen den kalitatezko zerbitzu bera eskaintzen jarraitzea da». ◀



© SOPELAKO UDALA

Maskotak adoptatzea eskatu die Udalak udalerriko lagunei

Sopelako Udalak bertoko bizilagunei eskatu die animaliak batzeko zentroetan dauden maskotak adoptatzatzen. Animalia horietako batzuk zentroan bertan jaiotakoak dira; beste batzuk, ostera, Sopelako kaleetan agertu eta identifikatu izan ez diren animaliak dira. Gaur egun katu bat eta hamar txakur baino gehiago daude aipatutako instalazioetan. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO

IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA

94 464 23 64/94 464 33 07

info@betikoikastola.net

www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Plentzia

Umeen begietatik

Umeentzako Plentzia euskalduna eraikitzeke prozesua abiatu du Udalak. Lehenengo saioa joan den egunean egin zuten.

Plentzia Amesten egitasmoa martxan ipini du Udalak, Bizkaiko Urtxintza Eskolaren laguntzagaz. Udal iturriek jakinarazi dutenez, horren helburua da umeei «kendutako» boterea «bueltan ematea». «Plentzia haurren begiradatik amesteko prozesua hasi dugu, betiere euskaraz, amets horietatik haurren Plentzia euskalduna eraikitzeke!», gaineratu dute.

Arduradunek azaldu dutenez, prozesu horren abiapuntua da egitekoa bera diseinatzea, baita herrian umeen parte-hartzearen beharraz eta eskubideaz ohartzea ere. Hori dena jorratze-



Lehenengo saioan prozesuaren logoa diseinatzeko saiakera egin zuten.

ko prozesuaren lehenengo saioa egin zuten, joan den egunean, martxoaren 16an, ludotekan. Saio horretan, bertaratutako umeek prozesuaren logoa diseinatzeko eta prozesuari izena emateko ahalegina egin zuten, bes-

teak beste. Hurrengo saioa udaberriko oporren osterako iragarri dute arduradunek; horretan sentsibilizazio faseari ekingo diote, prozesuaren nondik norakoak publikoki aurkezteko. ◀

info+: www.plentzia.eus

Barrika



info+: liburutegia@barrika.net / 946 775 163

Doako yoga ikastaroak emango dituzte apirilaren 1ean

Uribe Kostako Osasun Jaia antolatuko dute egunotan. Horren harira, doako yoga saioak egingo dituzte apirilaren 1ean, zapatuan, Barrikan. Naiara Mandalunizek emango ditu klaseak. Hala, interesdunek aukeran izango dituzte ondoko hauek: yoga lasaia, 16:00etatik 17:30era; yoga familiar, 18:00etatik 19:00etara; edo yoga dinamikoa, 19:15etik 20:45era. Horietakoren batean parte hartu gura dutenek aldezturik izena eman beharko dute, leku-kopurua mugatua izango da. ◀

Berango

Kalean abesteko ohitura berreskuratu gura dute auzotarrek

Antzina ohikoa zen udalerriko kaleetan jendea kantatzen entzutea eta ikustea, tabernaz taberna, lagunen artean. Hala ere, apurka-apurka, ohitura hori galtzen joan da, eta dardorduko antzinako kanta zaharrak ez dira entzuten Berangoko bazterretan. Hori dela eta, kaleko giroa alaitzeko guran, egiteko hori berreskuratzeko ahalegina egingo dute hainbat berangoztarrek. Hilaren azkenengo barikuz guztietan kalean abesteko hitzordua ipiniko dituzte, frontoiaren aurrean. Lehenengo saioa hil honetan izango da, martxoaren 31n, 20:30ean. ◀

info+: www.berango.eu

Bizitzeko modu berriei ekiteko tailerra egingo dute hilaren 25ean

Udaberria loratzeko urtaroa da, berriro haztekoa. Hori dela eta, Berangoko Stay and Job egoitzak tailer berezi bat egingo du zapatuan, hilaren 25ean. Albert Cruells hurreratuko da bertara, *El nuevo Re-nacer* izeneko ekimena partekatzeke asmoz. Azaldu duenez, bizitzeko modu berri bati ekiteko, molde zaharrak baztertu egin behar ditugu. Hala, egiteko horretan laguntzeko, tailerra egingo dute Berangoko egoitza horretan, zapatuan, 10:00etatik aurrera. Egun osoko egitasmoa izango da; horretan parte hartu gura dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte. ◀

izen-ematea: 678 058 390 (Silvia)

Gorliz

Udalerriko zaraten maila ona dela ondorioztatu du Udalak

Udalak agindutako ikerketa batek ondorioztatu du udalerrian dagoen zarata-mailak ez dela «ia» arazorik sortzen herritarren artean. Geotech Gestión Espacial enpresak egin du ikerketa akustikoa, eta emaitzak onak izan dira, «helburuak lortzeko % 100etik gertu dago». Azaldu dutenez, Gorlizko kalitate akustikoa ona da udalerriaren zati handi batean, «foru-errepideen inguruko gune batzuetan izan ezik, horietan dagoen batz besteko zarata-tasa helburukoak baino handiagoak direlako». Hala ere, nabarmendu dute herri barruko trafikoa ez duela udalerriko kalitate



Emaita denak udal-webgunean ikus daitezke.

akustikoa kaltetzen. Egindako ikerketak azaltzen du arrastiak direla zarata-maila baxuenak dauden momentuak; gauak, berriz, kaltetuak; «limiteak ezin ditu 55 dB-ak gainditu». ◀

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

portu zaharra bar

Portu zaharra 35. 48981 ALGORTA
94 468 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 · www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

txakoli motaTx
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Goleiri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

Uribe Kosta

Ekogune ikastaroetan izena eman daiteke daborduko

Askotariko ikastaroak antolatuko ditu Mankomunitateak hirugarren lauhileko honetan. Hiru euskaraz izango dira.



Apirilaren 5era arte zabalik egongo da izen-ematearen epea.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak prest dauzka hirugarren lauhilekoan eskainiko dituen Ekogune ikastaroak. Horietan parte hartzeko, izena eman daiteke apirilaren 5era arte. Guztira, 12 tailer prestatu dituzte; horien arteko hiru izango dira euskaraz: konpostaje-tailerra, ortua etxean eta umeentzako sukaldaritza, hain zuzen ere. Mankomunitatea osatzen duten zazpi udaletako batean erroldatutako gizon-emakumeek baino ezin izango dute ikastaro horietan izena eman (Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela edo Urduliz). Ikastaroak doakoak dira. Horietakoren batean parte hartu gura dutenek Mankomunitatearen webgunean dagoen inskripzio-orria bete eta e-mail bidez bidali beharko dute. ◀

info+: cursos@uribekosta.org

Osasuna jagoteko herri-ibilaldiak antolatu dituzte

Aurten ere osasunaren aldeko jaialdia prestatu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Ekimen horren ekitaldi nagusia Osasunaren Eguna izango da; apirilaren 2an, domekan, eta herri-ibilaldia izango da jarduera nagusia. Ohi den legez, martxa bi egongo dira: luzea 09:00etan hasiko da; eta laburra, 11:00etan. Lehenengoak 14,4 kilometroko ibilbidea izango du; bigarrenak, oster, 6,6 kilometrokoa. Hala ere, ibilbide biak Gornizko Elizako plazatik hasiko dira. Horietan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman dezakete; egunean bertan egitea ere aukeran egongo da. ◀

Eskualdeko ekoizleakaz bilera irekia egingo dute

Elikaduraren gaineko ardura handiagoa hartzen dabil jendea, zer jan, non hazi edo ekoizti den... Hori dela eta, eguneroko ekintzen bidez errealitatea aldatu gura dutelako, Uribe Kostako hainbat ekoizlegaz bilera irekia antolatu dute Getxoko zenbait eragilek. Apirilaren 3an batuko dira, arrastiko 07:30ean, Algortako Azaberrri kultur gunean. Elikadura, bizitza, euskara, agroekologia eta kilometro o gaiak jorratuko dituzte, besteak beste. Horrez gainera, herriko eragileek eta kolektiboen egitekoa zein izan daitekeen ere aztertze asmoa dute. Helburu izanda, hainbat lagun gonbidatuko dituzte, adituak eta dihardutenak: Fabio, Getxoko Dendarine Barri baserria; Gorka Arsuaga, Sopelako Sagondo erdiko baserria; Gotzon Kamiuaga, Iñaki Ubiria eta Gabi Basañez, Urdulizko Lantzarreta; Iker García, Atxondoko Zabale barazkiak; Lander Labajo, Berangoko Urtiñe baserria; eta Pello Fuente, Erandioko Solotxu. ◀

Unibertsitatea

Protesta-giroa bizi izan da azken egunotan

Aldarrikapen ugari entzun izan ditu azken egunotan Leioako campusak. Izan ere, gradueta-ko ikasleek hainbat ekimen antolatu dituzte azken asteotan, martxoaren 23ko greba-deialdia zabalitzeko. Horien artean, nabarmentzekoak dira hilaren 14an jazotakoak. Egun horretan, aurpegiak estalita zeuzkaten pertsona batzuek pintadak egin zituzten Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean; ondoren, gainera, fakultateko dekanotzan sartu eta petardo bat bota zuten. Horren ondorioz, tinpanoa mindu zitzaion langile bati, EHUK jakinarazi zenez. Horren aurrean, ekintza-egileek «barkamena» eskatu zieten kalterekin bat jaso zuten langileei eta ikasleei. Gaineratu zuten, ekimenak ez zuten inor kaltetzeko helbururik, «suaren alarmak aktibatzea zen helburu bakarra». EHUK ordea, «irmoki»

arbuiaitu ditu «eraso» horiek denak, eta hori adierazteko elkarretaratzea egin zuten hurrengo egunean, hilaren 15ean. Egun horretan bertan, kontzentrazioa egiten zebiltzan bitartean, «unibertsitatea berriro erasotu zuten»: txanodun talde batek pintura bota eizuen dekanotzako bulego batzuetan, eta atondoan eta atezaintzaren aretoan ere gorotza eta hondakinak utzi zituzten, Unibertsitateko iturrien arabera. Bestalde, egun berean entzun ziren aurre-doktoreen aldarrikapenak ere campusean; izan ere, Ikertzaile Aurre-doktoreen Asanblada sortu eta protesta egin baitzuten EHUKo ikerlariak. «Kontratuetan egindako aldaketekiko desadostasun irmoa» adierazteko kontzentrazioak eta manifestazioak egin zituzten. Leioako campusean euren eskakizunak eta desadostasunak helarazi zituzten errektoretzari. ◀

Hogeita bost urteko borroka gogoratuko dute apirilaren 5ean

Apirilaren 1ean 25 urte beteko dira EHUK bederatzi irakasle lanetik bidali zituenetik. Borrokan segitzen dute horietako hiruk, irakasleria propioaren eta «konponbide duin eta justu» baten alde. Urtemuga hori gogoratze-ko asmoz, urteurreneko ekitaldia egingo dute apirilaren 5ean, eguaztenean, Arte Ederretako fakultatean. Horretarako hitzordua 11:00etan ipini dute, eskultura lantzeko gelan. Irakasleek azaldu dutenez, ekitaldi xumea izango da. Lagunak eta gonbidatuak bertaratuko dira, «bakoitzak nahi duena esatera eta 25 urte hauetako balorazioa egitera». Ondoren, hamaiketako egingo dute. ◀



Ttipi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Gautxori, saguzar, gamusino bila...

Korrika 20 apirilaren 6ko gauean helduko zaigu eskualdera. Gauez eskualde osoa zeharkatuko duen lehenengo Korrika izango da eta horrek bazterrak nahastu ditu. Era guztietako komentarioak entzuten ditugu Korrikaren antolaketan ibiltzen garen lagunok. Eskualdeko herriaren arabera, gainera, gauza okertu egin ahal da. Gaueko ordu batean ala lauretan pasatzea ez baita gauza bera.

Hala ere, gure aldetik, Korrika gautxori honi ere harrera beroa egitea eskatu nahi dizuegu. Gure eskualdeko bideak eta kaleak euskaltzalez bete behar ditugu. Hurrengo batean egingo dugu lo! Gora Korrika! ◀



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

Getxo



Estatubatuarra izan arren, 2011n egin zen Asamblea Nacional Catalanako kide da Liz Castro. Ordutik buru belarri egon da bertan beharrean,

«Mugimendu katalanak euskaldunetik ikasi du»

Liz Castro ANCKo kidea da. AEBetan edo Katalunian bizi izan da azken 30 urteotan, eta azken horretako mugimendu independentista hur-hurretik ezagutzen du.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO**
ARGAZKIA: **JOSEP MARIA MONTANER**

Getxoko Gure Esku Dagoren taldeak dena prest du erabakitze eskubidea gauzatzeko bideari ekiteko: talde eragilea aurkeztuko du datorren apirilaren 6an, eguenean, 19:00etan, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Bertan, galdeketak egiteko eguna onetsiko edo erabakiko dute; gainera, Liz Castro gonbidatu dute aurkezpen horretara, Herrialde Katalanetako Asamblea Nacional Catalanako (ANC) kidea da bera.

Apirilaren 6an Getxoraino etorriko zara, bertoko Gure Esku Dagoren talde eragileak antolatu duen aurkezpena. Zer deritzozu eragile horri?

Oso garrantzitsua dela eta gaur egungo egoerari oso ondo erantzuten diola uste dut. Demokraziari ematen zaion garrantzia gustatzen zait, bozkatzearen ideia, galdeketa egitea eta herriaren mobilizazioa sustatzea.

Herrialde Katalanetako prozesu independentista ezagutzen duzu hur-bil-hurbiletik. Zelan bizi duzu hori?

Hasiera batean ikusle gisa bizi izan nuen dena. Kaleko jendeak zuen pape-ra oso interesgarria iruditzen zitzaidan;

jende «normalarena», politikaria, liderra eta famatua ez zenarena. Egoeragaz nazkatuta zeuden eta beharrezkoak ziren orduak eskaintzen zizkieten zer gura zuten politikariei azaltzeko. Jende horren borroka itzultzen hasi nintzen, egoera Herrialde Katalanetatik kanpo ezagutzera emateko. Eta hala, apurka-apurka, mugimendu horregaz bat egiten hasi nintzen, betiere bertan gertatzen zebilenaren berri emateko. Horretarako, XXI. mendeko teknologiarren erremintak baliatzen nituen: webguneak, blogak eta sare sozialak. Hala, gertakarietatik publikoarengana zuzenean heldu ahal izan nintzen.

Mugimendu independentista horiek munduratzeari beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?

Bai, beharrezkoa dela uste dut bi arrazoiengatik. Alde batetik, ez dut uste inork lagunduko gaituenik herri bi hauetako etorkizuna erabakitzen, eta ez dut uste kanpoko inork egin behar duenik ere. Nire ustez, nazioarteko komunitatearen papera aitortzea baino ez da, behin erreferenduma egin eta independentzia deklaratu ostean. Gure errealitatea ezagutzera ematea garrantzitsua da aitortza hori lortzeko, independentzia lortuz gero. Bestetik, mota

honetako mugimenduak eredugarriak dira, demokratikoak, biolentzia bakoak eta alaiak. Horrenbestez, munduko beste mugimendu eraldatzaileentzako eredu izan gaitezke. Azken 7 urteotan, milioi bat pertsona baino gehiago mobilizatu ditugu, zazpi biderrez, biztanleriaren % 20 inguru! Gure

“**Gaur egun dagoen botere-balantza mantentzea interesatzen zaie estatuei**”

mugimendua efektiboa izan da oso; uste dugu itxaropena eman ahal diela bestelako mugimendu demokratikoei.

Eta munduak zelan ikusten ditu prozesu horiek denak?

Mundua oso handia da eta *status quo*-ra jo ohi du; estatuei interesatzen zaie gaur egun dagoen botere-balantza mantentzea. Hala ere, demokratek liluraz ikusten gaituzte. Mobilizatzeko dugun gaitasuna ezaguna da, demokraziaren alde egiten dugun apustuak prestigioa ematen digu, baita sinesgarritasuna ere. Badakite ez garela geldi-

tuko bozkatzeko ahalmena lortu arte, edozein herriren eskubidea delako.

Zure ustez, zeintzuk dira mugimendu independentista katalanaren eta euskaldunaren arteko ezberdintasunak?

Katalanak euskaldunetik ikasi du Estatua ebidentzian uzteko. Agintariak esaten zuten biolentzia barik edozer-taz berba egin zitekeela, baina inoiz ez da hori bete. Gure Esku Dagok ere erakutsi du mobilizatzeko ahalmena duela, modu baketsu eta demokratiko batean; eta ziur nago independentzia lortzeko bide onean doala.

Joan den irailean argitaratu zenuen *Many Grains of Sand* liburua, eta egunotan aurkeztuko duzu Euskal Herrian. Zer jaso duzu bertan?

Aktibismo sozialerako ideia-iturria da. Askotariko argazkiak baliatuta, aldeketa posibleak direla erakusten da bertan. Eraldaketarako norbanakoek duten paper garrantzitsua erakutsi gura izan dut. Izan ere, pertsona bakar batek deklaratu du independentzia, baina gainontzekook horretan lagunduko dugu, gure harri-koskorrak ezarritik, helmugaraino heldu ahal izateko.

Ez da plazaratu duzun lehenengoa...

What's up with Catalonia (Zer gertatzen zaio Kataluniari?) liburua argitaratu nuen 2013an. Askotariko akademikoen, politikarien, ekonomisten, hezitzaileen eta linguisten entsegu-bilduma bat da, independentziaren gaia-aren ingurukoa. Gainera, Toni Strubellen *What Catalans Want* (Zer nahi dute katalanek) eta Matthew Treeren *Barcelona, Catalonia: A View from the Inside* (Barcelona, Katalunia: Begirada bat barnetik) elkarrizketa-liburuak editatu nituen 2011n. Dena ingelesez dago, kanpokoek bertako egoera ezagutu dezaten.

Kataluniako Parlamentuak erreferenduma antolatuko du aurrean. Zer espero duzue?

Erreferendum ofiziala eta loteslea egitea modurik onena da estatu independente bat sortzeko. Hartutako konpromisoan konfiantza dugu. Gainera, presidenteak baieztatu du Kataluniako Parlamentuaren eta Europako Parlamentuaren aurrean erreferendumak ondorio argiak izango dituela: botoen % 50 +1 lortuz gero, independentzia deklaratu da. Ezin gehiagorik igarri!

Zein izango da mugimendu independentistaren etorkizuna?

Mugimendu honen amaiera independentziaren inguruko erreferenduma bera izango da. Hori irabazteko kanpaina egin behar dugu. ◀



Izarren argipean ere, euskara bultzatuz

Uribe Kostara gauez helduko da Korrika, apirilaren 5ean, 23:40ak aldera. Apirilaren 6an, gaueko ordu txikitan, eskualdea gurutzatuko du, eta itsasadarra zeharkatu Ezkerraldera bidean. Ostera ere, 21:25ean itzuliko da gurera, Erandiogoikora.

KEPA UGARTE MARTIARENA

Martxoaren 30ean hasiko da 20. Korrika, Otxandion. Datorren eguneko arrastiko 05:00etan hasiko da euskararen aldeko lasterketa; apirilaren 9an amaituko da Iruñean, Euskal Herri osoan 2.205 kilometro egin ostean. Horien arteko 50 kilometro inguru Uribe Kostan barrena egingo ditu. Daborduko, hasiera-eguneko egitaraua zehaztuta daukate AEKren lagunek; hala ere, ez dituzte lehenengo kilometroetan lekukoa eroango dutenen izenik ezagutarazi oraindino. Horien txanda heldu aurretik, eskola-umeak izango dira pausoz pauso Otxandioko kaleak gurutzatuko dituzten lehenengoak; 10:30ean egingo dute eta Korrika Txikia. Horren ostean, jai-giroan murgilduko dira: euskararen aldeko lasterkak 20 edizio hauetan plaza-ratutako kanten koreografiak (11:15), kale-animazioa (13:00), zurezko jolasak (13:30) eta *Aurrera Korrika!* ikuskizuna (15:45) egongo dira. Euskaltzaleek lekukoaren atzean lehenengo pausoak eman baino lehenago, ostera, hasiera-ekitaldia egingo dute, 16:40an;

eta Korrika agurtu ondoren ere, otxandioarrek eta bertaraino hurreratuko diren euskal herritar guztiek izango dute zerez gozatu: txokolatada (18:00), Gozategi taldeak alaitutako erromeria (19:30) eta Egonian elektro-txarangaren kalejira (20:00) iragarri dituzte.

Korrikak 2.205 kilometro egingo ditu Euskal Herri osoan; horietatik, 50 kilometro ingurugure eskualdean barrena

Uribe Kostako AEK-k aurreratu duenez, eskualdetik autobus bat aterako da, Korrikaren hasiera-egunean Otxandion egon gura duten uribekostar denak garraiatzeko asmoz; 13:00ak aldera abiatuko da. Salneurriari dagokionez, oraingo 10 euroan ipini dituzte txartelak; hala ere, «litekeena da prezioa jaitsi ahal izatea». Autobusez joan gura duenak izena eman dezake eskualdeko edozein euskaltegitan. Eta halanda-

ze hasiko da aurtengo Korrika; hogeigarrenez, lekukoa eskuz esku, kilometroz kilometro eta herriz herri ibiliko da Iruñeraino apirilaren 9an heldu arte.

Uribe Kostari dagokionez, Korrikaren begira egongo dira bertokoak apirilaren 6an, egunean; eskualdeko herri ia denetatik pasatuko da; beste urte batez, Korrikak ez duelako Lemoizko biderik zapalduko. Hala, apirilaren 5ean, eguaztenean, Laukiztik helduko da Urdulizera, 23:40ak aldera, eta Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzabalzeta / Romo, Leioa eta Erandio gurutzatuko ditu Korrikak, apirilaren 6an, gaueko ordu txikitan. Aurreikusitako erritmoari eusten badio, goizaldeko 04:55ak aldera joango zaigu Barakaldora bidean, ohi den legez, itsasadarra traineruz igaroz, Ezkerralderantz. Ostera, egunean bertan Erandiogoikoan bueltan izango dugu Korrika, 21:25ean, Bizkaiko Meatzaldea zein Enkarterriak eta Arabako Aiaraldea gurutzatu ostean. Behin datak zeintzuk diren jakinda, eskualdeko Korrika batzordeak lanean hasi ziren, euskararen aldeko lasterketak merezi duen harrera prestatzeko; daborduko, hainbat ekitaldi egin dituzte, eta

Korrika kulturala



Algorta

Martxoak 23, eguna

09:00 / 16:30 Bertso-saio didaktikoa, Lauaxeta euskaltegian.

Martxoak 24, barikua

20:00 Bertso Korrika, Bodeguilla Butrón tabernatik.

Martxoak 26, domeka

17:30 Mahai-jolasak, Azebarrin.

Gorliz-Plentzia

Martxoak 24, barikua

19:00 Korrikaren aurkezpena, Danontzat gaztetxean.

Apirilak 5, eguaztena

Korrika Txikia.

22:00 Korrikaren etorrera girotzeko, Elektro Rock eta Aldats txarangak.

Erandio

Martxoak 24, barikua

19:00 Korrikaren aurkezpena, Altzagako Azoka Zaharrean.

Martxoak 25, zapatua

19:30 Ez da kasualitatea bertso-saio musikatua, Kalezulo gaztetxean.

Martxoak 31, barikua

19:30 Kanta-poteoa, La Plazatik.

Berango

Martxoak 26, domeka

12:30 Korrika-jaia.

Apirilak 5, eguaztena

Korrika Txikia.

askoz gehiago prestatzen dabilta. Korrikako eskualdeko arduradunek azaldu dutenez, Sopelan, Berango, Leioan, Erandion eta Urdulizen taldeak sortu dituzte hainbat herritarrek. Bestalde, «Algortan, batzordetxo bat eratu berri dugu. Oraindik lehen urratsak ematen gabiltza; baina, egitarau polita osatzen gabiltza», gaineratu dutenez. Korrika batzordeek izaera zabala daukate: edozeinek (elkarteek, kiroltaldeek, norbanakoek...) parte har dezake. Batzordearen zereginen artean daude herrian egingo diren ekitaldiak antolatzea, Korrika Txikia, eta abar.

«Aniztasuna» irudikatuz

Batzuk izango da aurtengo Korrikaren goiburua; «hizkuntza, kultura eta mundu ezberdinek osatzen duten aniztasuna» irudikatu gura dute horregaz. 'Bat' eta 'zuk' berben arteko jolasa da, herritarrek euskarara gonbidatzeko: «Hizkuntzen eta hiztunen berdintasunaren aldeko jaira». Asier Amondo Korrikaren arduradunak azaldu zuen goiburua, Donostiako San Telmo museoan, 2016ko azaroaren 9an egindako aurkezpen-ekitaldian. Beren-beregi, San Telmon bertan gordetzen da Korrikaren jatorrizko lekukoa, Remigio Mendiburuk sortutakoa. Amondoren berbetan, «hizkuntza, kultura, mundu 'bat' sendotzeko bidean, 'zuk' ere bat egin dezakezu, zeuretik, zeure hizkuntza-aberastasuna eta kultur aniztasun unibertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz».


Bestalde, Mertxe Mugika AEKren koordinatzaile nagusiak Korrikaren helburuak azaldu zituen. Bere esanetan, euskararen normalizaziorako «ezinbestekoa» da helduen guneek ere euskaraz funtzionatzea: «Horretan da AEKren urteotako zeregin nagusia», gaineratu zuenez. «Dena den, oraindik ere euskaltegiei zuzendutako baliabideak ez dira nahikoak», adierazi zuen Mugikak.

Korrikaren sortzailei gorazarre eginez

Badira 37 urte Korrika jaio zela, AEK-ko eta AEKtik kanpoko hainbat lagunen ekimenez. 1980ko lehenengo Korrika hark Euskal Herria euskalduntzeko helburua zeukan. «Orain arte ere bere horretan jarraitzen du xede horrek, bizirik, pil-pilean, euskarak oraindik ez duelako egoera normaldua bizi; baina, era berean, AEK-k lekuko hori ez duelako geldirik utzi eta, Korrikaz Korrika, Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzeko nahi izan duelako euskararen aldarria», azaldu dute sustatzaileek. Horregatik guztia-gatik, orain dela 37 urte Korrikaren lekukoa eskuz esku abiarazi zuten haiek omendu gura ditu euskararen aldeko lasterketaren 20. edizio honek. Ordutik, «euskalgintzaren, euskal kulturaren eta euskararen erreferentzia bihurtu da», Amondoren berbetan. Korrika batasuna sortzen duen ekimena dela dio aurtengo arduradunak; irudi koloretsua erabiliko dute 20. edizioan, hori islatzeko guran. ◀



Apirilaren 5eko azken minutuetan helduko da eskualdera; apirilaren 6an gurutzatuko du Uribe Kosta.



Leioa

Martxoak 29, eguaztena

10:00 / 18:00 Berbodromoa, Sakoneta kiroldegian.

Martxoak 31, barikua

10:00 Korrika Txikia.

12:00 Umeentzako disko-festa, Barandiaran Behekoa ikastetxean.

19:30 Poteoa musikagaz, Maitanetik.

Itzubaltzeta/Romo

Martxoak 31, barikua

11:30 Korrika Txikia, Artatza-Romo institututik. Ondoetorria, Santa Eugenia plazan.

17:30 Zirku-tailerra eta txokolate-jana, Santa Eugenia plazan.

Sopela

Martxoak 31, barikua

19:00 Kantu-jira Nafarroa taldeagaz, udal pilotalekutik.

Apirilak 1, zapatua

11:00 Esaera Zaharren Txapelketa, udaletxearen aurreko plazatik abiatuta. Izen-ematea, martxoaren 24ra arte. Informazio gehiago: aitor-f@aek.org

Urduliz

Martxoak 31, barikua

19:00 Korrikaren aurkezpena, kultur etxean.

Apirilak 2, domeka

Goiz-eguerdian, Korrika-jaia.

Apirilak 5, eguaztena

Korrika Txikia.

20:00 Triki-poteoa.

Barrika

Martxoak 31, barikua

20:30 Korrikaren aurkezpena.

Lemoiz

Apirilak 1, zapatua

13:00 Korrika-jaia, Armintzan.

info+: www.korrika.eus

Oskara ikuskizunak euskal kulturaren zenbait pasarte islatzen ditu. © KUKAI DANTZA



LEIOA

Zuzeneko dantza eta filma, Kukai konpainiagaz

Eguaztenean, Kukai konpainiako dantzariak *Oskara* ikuskizuna eskainiko dute, Kultur Leioako entzungen lan, apirilaren 5ean; saioa arrastiko 08:30ean izango da, eta sarrerak 6 eta 12 euro artean egongo dira salmentan. Kultur iturri leioaztarrek aurreratu dutenez, emanaldia amaitutakoan, proiektu honen zuzendaria den Jon Mayagaz berba egiteko aukera egon-turaren eta mitoen hainbat ataletatik igarotzen da, bere jatorritik aro garai-kidera arte salto eginez. Horrez gainera, «indar bikoitzaz eta harriduraz beteriko» simboloen eta ikonografien ibilbide plastiko zein emozionala marrazten du», sortzaileek azaldu dutenez. Besteak beste, Erramun Marti-korenak abesten ditu ikuskizunean agertzen diren abestiak. ◀

ANTZERKIA

MARTXOAK 24, BARIKUA

Ustruku, ipuinak elkarri kontatzeko taldea

18:00 | Algortako kultur etxea | **Getxo**
Sendi egitasmoagaz. Euskaraz. Sarrera, doan. Informazio gehiago: sendi@egizu.eus

Hau da nire ametsen kolorea

20:30 | Kultur Leioako entzungela | **Leioa**
Rouge Élea taldeagaz. Dantza eta zirkua egiten dituzte. 9 urtetik gorakoentzat. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Sarrera: 5-10 euro.

MARTXOAK 25, ZAPATUA

Goazen dantzara

17:00 | **Altzagako Azoka Zaharra** | **Erandio**
Zapatutan Euskaraz egitasmoko akabu-jaila. Bat, bi, hiru... festa! taldeko pallazoakaz. Beharrezkoa da gonbidapena eskatzea, Euskara Zerbitzuan: 944 890 128

Kaput

19:00 | **Berango Antzokia** | **Berango**
Ganso&Cia konpainiagaz. Denontzat. Testu barik. Sarrera: 3 euro.

MARTXOAK 26, DOMEKA

Baserrian amets

18:00 | **Berango Antzokia** | **Berango**
Erdabe eta Balea Musika Idelak taldeakaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 31, BARIKUA

Laburtu marra hau ipuin-saioa

19:00 | **Erandiogoikoko gizarte-etxea**
Amaia Arriaran ipuin-kontalariagaz. 5 eta 10 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

BERBALDIAK

MARTXOAK 30, EGUENA

Peio Lizarralderen Elur Bustia
liburuaren gaineko berbaldia

19:00 | **Kurtzio kultur etxea** | **Sopela**
Sopelako Irakurle Klubak antolatuta. Euskaraz. Sarrera, doan.

Laranja bat zaborretan
liburuaren inguruko berbaldia

19:30 | **Algortako kultur etxea** | **Getxo**
Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak antolatuta. Patxi Zubizarreta idazleagaz. Euskaraz. Doan.

DANTZA

MARTXOAK 26, DOMEKA

2x4 ikuskizuna

APIRILAREN 6TIK 26RA

Carmen Ruizen akrilikoak

Algortako kultur etxea | **Getxo**
Astelchenetik zapatuta. Sarrera, doan.

LEHIAKETAK

APIRILAK 1, ZAPATUA

Esaera Zaharren Txapelketa

11:00 | **Udaletxeko plaza** | **Sopela**
Uribe Kostako AEK-k antolatuta. Izen-ematea, martxoaren 24ra arte. Informazio gehiago: aitor@aeek.org / 695 774 015

KIROLAK

MARTXOAK 26, DOMEKA

Herri-lasterketa

10:30 | **Udaletxeko plaza** | **Sopela**
Munarri Atletismo Taldeak antolatuta. Informazio gehiago: munarri.bolgsport.com

APIRILAK 2, DOMEKA

Osasunaren Eguneko ibilaldia

09:00 | **Elizako plaza** | **Gorliz**

Ibilbide bi egingo dituzte: 09:00etan, luzea (14,4 kilometro) egingo dituzte; eta, 11:00etan, laburra (6,6 kilometro). Egunean bertan izena eman daiteke, goizeko 08:30ean. Informazio gehiago, Barrikako, Gorlizko eta Plentziako kultur etxectan.

MUSIKA

MARTXOAK 23, EGUENA

Peter Abels kantautorea

20:00 | **Jolasaurre taberna (Algorta)** | **Getxo**
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

The Binilos

20:30 | **Piper's taberna (Algorta)** | **Getxo**
Sarrera, doan.

MARTXOAK 24, BARIKUA

Plentzia Kantagune

19:00 | **Baseliza** | **Plentzia**

Entsegua egin ostean, kalejiran abiatuko dira, Elizako plazatik, 20:30ean.

MARTXOAK 26, DOMEKA

Inprobisazio-saioa

19:30 | **El Comercio taberna (Areeta)** | **Getxo**
Andrés Isasi musika-eskolako jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 30, EGUENA

Beat Jazz taldea

20:00 | **Glass taberna (Areeta)** | **Getxo**



Aste Santu honetan ez zaitez etxean gelditu!
Urrun joan barik, aisialdirako egundoko eta eguneko 4 plan





1. Ekogunea Haur Parkea

Pedagogia berdeko irizpideetan oinarrituta, 11 urtera arteko umeentzako haur-parkea da Ekogunea, familian eta lagun artean gozatzeko egundoko aukera.

Kutxa Ekogunea Haur Parkea neska-mutil gaztetxoentzako eta horien familientzako aisialdiko gunea da. Pedagogia berdeko irizpideetan oinarritzen du bere eskaintza, naturagaz harremana bilatzen du. Hori dela eta, egiturek paisaia irudikatzen dute eta jostailuak material naturalez egindakoak dira, toxiko barik. Bertan, askotariko tailer gidatuak prestatzen dituzte, astebururo, urritik martxora bitartean. Horrez gainera, urtebetetzeak eta bestelako festak antolatzea aukeren artean daude. Jolasteko aretoagaz batera, produktu eta jostailu iraunkorak erosteko denda ere badago; kafetegi bat terraza estaliagaz ere bai.

Haur-parkeak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Jolasteko aretoa, 6 eurotik gora.
- Askotariko tailerrak, astebururo.
- Urtebetetzeak eta festak, 12 eurotik gora (ume bakoitzeko).
- Urteko bazkidetzak, 75 eurotik gora.
- Kafetegia eta terraza estalia.

0-11 URTE ARTEKO UME ETA FAMILIENTZAKO AISIALDIA GUNEA.

PEDAGOGIA BERDEKO IRIZPIDEETAN OINARRITUTA.

TAILERRAK.

FAMILIAN EGOTEKO KAFETEGIA.

KUTXA EKO GUNEA HAUR PARKEA

OSTIRALA: 16:00-20:00

LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNAK: 10:30-20:00

EKO GUNEA.EUS
TEL: 943 552 020
DONOSTIA



2. Eureka! Zientzia Museoa

Simulagailuen gelan askotariko emozioak bizi daitezke, berbarako 1 formulako automobila eta hegaldi simulagailua; museoaren osagarriak dira.

Zientzia modu dibertigarrian ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen du Eureka! Zientzia Museoa. 170 modulu interaktibo baino gehiago daude, zortzi aretotan banatuta. Horietan gure gorputza barrutik zelakoa den erakutsiko digute, edo argiaren bixikeriek liluratuta utziko gaituzte, zein zentzumenek zelan engaina gaitzaketen antzeman dezakegu eta elektrizitateagaz jolasteko aukera ere izango dugu. Horiez guztiez gainera, askotariko jarduerak antolatu daitezke museoan, esaterako udaleku irekiak, robotikaren eta bideo-jokoen gaineko ikastaroak, astronomia-saioak zein urtebetetze-festak.

Museoak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Doako aparkaleku zabala.
- Egunero zabalik dago.
- Terraza duen kafetegi-jatetxea, piknik-gune estalia, haurren jolas-parkea, kontsignak, eta lorategia.
- Gipuzkoako eraikin ezagunen maketa-bilduma.

eureka! zientzia museoa

ZIENTZIA DIBERTIGARRIA!

eureka! zientzia museoa
kutxa FUNDAZIOA

T. 943 012 478 | eurekamuseoa.es



3. Sopuerta Abentura

Zuhaitzetako abentura-parkerik handiena da Sopuerta Abentura, Euskadin. Gainera, ekipamendu eta zerbitzu onenak eskaintzen ditu.

Sopuerta Abenturak eskarmentu handia dauka bere arloan, parke aitzindaria da eta; izan ere, aurten 10. urteurrena ospatuko du. Hasieratik, bisitarien gozamina eta segurtasuna dira parkearen lehentasunak; lagun denei arnesa eta kasko ipintzen die. 100 joko edo erronka eta 40 tirolina baino gehiago dauzka; hala, bakarra da Bizkaian eskaintza zabal hori duten zuhaitzetako abentura-parkeen artean.

Parkeak honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkie bisitariei:

- Berrogei tirolina baino gehiago, 250 metro luzekoak.
- Hainbat zirkuitu, 1 metroko altueratik 24 metrotarainokoak; hiru berri-berriak.
- Ehun joko eta erronka baino gehiago.
- Bat-bateko erreskaterako zerbitzua: parte-hartzailea lurrera jaitsiko dute momentuan, parkearen edozein lekutan, beldurtuz gero.
- Erabateko formakuntza eta eskarmentua duen begirale-taldea.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen komunak eta taberna.

ABENTURAZ GOZATU!
Zuhaitzen artean hegan

**TIROLINAK
ORIENTING
ARKU-JAURTIKETA
ZUBI ESEKIAK
URTEBETETZEAK**

HIRUKAlagun
eta bazkideen artean
3 BONO BIKOITZ
(bi heldu eta bi umeentzako)
zozkatuko ditugu!*

**SOPUERTA
ABENTURA**

*Sarrerak lortu gura badituzu apirilak 11 baino lehenago, bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337. Adierazi zein esperientzia (SOPUERTA ABENTURA edo BIRD CENTER) bizi gura duzun.



4. Urdaibai Bird Center

Naturaren museo bizia da Urdaibai Bird Center; hegaztiez eta horien migrazioez gozatzeko jendaurrera zabalik dago.

Ekipamendua bera paduraren egundoko behatokia da, eta Urdai-baiko Biosfera Erreserbaren bihotzean kokatuta dago. Zentroan bertan, ikerketa- eta dibulgazio-taldeak batu eta koordinatzen dira; horrenbestez, hegaztien inguruan garatzen diren proiektuen lekuko pribilegiatuak dira bisitariak. Gune bizia da Urdaibai Bird Center; ezin igarri egunak zer eskainiko duen, hegaztiek zehazten dutelako zentroaren norabidea. Urdaibai Bird Center zabalik dago lankidetzan jarduteko beste zentro batzuek, Atlantiko ekialdeko migrazio-bidean dauden hezeguneetako hegaztien azterketan dihardutenakaz, batez ere. Urdaibai Bird Centerreko bisitariak gozatu ahal izango dute Urdai-baik eskaintzen duen naturaz, berez museoa den zentrotik bertatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Biosferaren Erreserba bakarra da Urdai-bai; horrez gainera, euskal itsasbazterrean babestuta dagoen ingurune baliotsuena ere bada.

**URDAIBAI
BIRD CENTER**
ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES

**URDAIBAI BIRD CENTERRA
BISITA EZAZU!**
**HEGAZTIEN NAZIOARTEKO
AIREPORTUA!**

HIRUKAlagun
eta bazkideen artean
2 BONO BIKOITZ
(bi heldu eta bi umeentzako)
zozkatuko ditugu!*

Gainera %20ko deskontua
Bird Centerreko dendan.

*Sarrerak lortu gura badituzu apirilak 11 baino lehenago, bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337. Adierazi zein esperientzia (SOPUERTA ABENTURA edo BIRD CENTER) bizi gura duzun.



BAPIRUKE

Udaberriko koloniak

Apirilaren 10etik 21era



Norentzat: 5-12 urte bitarteko umeentzat.

Non: J.B. Zabala (Algorta) eta Romo eskoletan.

Prezioa: bazkideek 35 euro; bazkide ez direnek 55 euro; gutxieneko errenta Getxon *10 euro.

Izena emateko: Bankuko abonarearekin eta Osakidetzako txartelaren fotokopiarekin bulegora etorri eta bertan izen emate orria bete eta sinatu behar da (Euskadiko Kutxa: 3035 0108 06 1081032766).

Izen emate epea: bazkideek martxoaren 27an eta 28an; eta bazkide ez direnek martxoaren 29an eta 30ean.

Izena emateko ordutegia: Egunero 10:00 - 13:00; 28an eta 30ean arratsaldez ere 16:30 - 18:00.

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA

Martikoena kalea 16, 2.solairua - 4.bulegoa;

48992 Algorta (Getxo)

94 491 03 87 | info@bizarralepoan.eus

www.bizarralepoan.eus



**BIZARRA LEPOAN
EUSKARA ELKARTEA:**

GETXOKO EUSKARA ELKARTEA GARA ETA
22 URTE DARAMATZAGU EUSKARAREN
ERABILERA SUSTATZEN. BAPIRUKA, GEHITU
KIROLA ETA GEHITU KULTURA DIRA GURE
EGITASMO NAGUSIAK. HERRIKO
EUSKALTEGIEKIN BATERA EGIZU
ELKARTEAN ERE PARTE HARTZEN
DUGU.



babesleak



*Lanbideren ziurtagiria + NANaren fotokopia

Umeentzako Liburuen Eguna antolatu dute

Raúl de la Cruz ipuin-kontalariak *Ma-ripuzker...* edo *kandela?* izenburuko saioa eskainiko du, Barrrikako liburutegian, martxoaren 31n, barikuan. 4 eta 8 urte arteko umeentzako emanaldia 18:00etan hasiko da; sarrera, doan. ◀

Dantza-ikuskizuna, Zig Zag taldeagaz

Lorategi sekretua umeentzako ikuskizuna eskainiko du Zig Zag dantza-taldeak, Berango Antzokian, apirilaren 2an, domekan. Emanaldia arrastiko 06:00etan hasiko da, eta sarrerak 3 euroan egongo dira salmentan. ◀

Naturak garrantzia dauka umezaroan?

Naturak umezaroan duen garrantziaren gainean berba egingo dute, Algor-tako Zabala ikastetxean, apirilaren 6an. Mahai-ingurua 17:30ean hasiko da; sarrera, doan. Sendik antolatu du. ◀

izen-ematea: sendi@egizu.eus



Guria ostatuan diskoaren abestiak eskainiko ditu abeslari onatiarrak. GOIENA

Ruper Ordorika abeslaria, Sopelan

Guria ostatuan (Elkar, 2016) izenekoa Ruper Ordorika abeslari onatiarrak egindako 15. diskoa da. Azken urteotan alboan izan dituen Arkaitz Miner (gitarra), Fernando *Lutxo* Neira (baxua) eta Hasier Oleaga (bateria) musikariek joko dute beragaz, Kurtzio kultur etxeko kontzertuan. ◀

Noiz: Martxoak 24, barikua.
Ordua: 20:00
Non: Kurtzio kultur etxea.
Sarrera: 10 euro.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo

El Lagarto Baila taldeagaz. Familia osoarentzat. Sarrera: 5 euro.

DEIALDIAK

MARTXOAK 23, EGUENA

Berdintasun Planaren aurkezpena

18:30 | Fadura kiroldegia (Algorta) | Getxo
Getxoko Udalak antolatuta. Sarrera, doan.

APIRILAK 5, EGUAZTENA

EHUtik kaleratutako irakasleen urteurren-ekitaldia

11:00 | Arte Ederren Fakultatea | Leioa
Harrizko aretoan egingo dute. Kafea eta bizkotxoa egongo dira. Sarrera, doan.

ERAKUSKETAK

MARTXOAREN 24RA ARTE

Emakumeen begiradak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Erakusketa kolektiboa. Astelehenetik barikura. Sarrera, doan.

MARTXOAREN 31RA ARTE

Loreen sentsualitatea

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Itziar Nazabalen margolanak. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

El pozo de los enamorados

Algortako kultur etxea | Getxo
Doug Olivaresen argazkiak. Astelehenetik zapatura. Sarrera, doan.

APIRILAREN 1ERA ARTE

Rincones de Bilbao

Artea merkatalgunea | Leioa
Rincones de Bilbao lehiaketaren epaimahaiauk aukeratutako hogeitargazkirik onenak. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

APIRILAREN 3TIK 27RA

Lan grafikoa 70eko hamarkadan

Algortako kultur etxea | Getxo
BBK Gizarte Ekintzak antolatuta, hainbat eragileakaz. Astelehenetik zapatura. Doan.

APIRILAREN 5ETIK 30ERA

Ainhoa Ortellsen Pintura neu baino sendoagoa da

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Pinturak eta eskulturak. Eguaztenetik domekara. Sarrera, doan.

MARTXOAK 31, BARIKUA

Berango Kantari

20:30 | Udal-pilotalekua | Berango
Hileko azken bariku guztietan egin gura dute.

Carla Pires abeslaria

21:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Sarrera: 6-12 euro.

APIRILAK 6, EGUENA

Niko Brochado (rocka)

20:00 | Piper's taberna (Algorta) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

ZINEMA

MARTXOAK 25, ZAPATUA

Lego Batman, la película

18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

MARTXOAK 26, DOMEKA

Koko, dragoi txikia animaziozko filma

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 30, EGUENA

Joven y bonita

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

Nosotros, mujeres de

Euskalduna dokumentala

20:00 | Astrabuduko ludoteka | Erandio
Sare Antifaxistak antolatuta. Sarrera, doan.

APIRILAK 2, DOMEKA

Ozzy animaziozko filma

17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

APIRILAK 3, ASTELEHENA

Nuestra hermana pequeña

18:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Enclave Getxoko emakumeen elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

APIRILAK 4, MARTITZENA

Euskadi

19:30 | Azebarri kultur elkartea | Getxo
Euskal Herrian grabatutako 3Dko lehenengo filma; 1936an egin zuten. Sarrera, doan.



Aurtengo goiburuko esaera zaharra hau da: *Zakurrak nagusia milikatuz, ogi puska izaten du.*

Betebehar batzuk

Nork parte har dezake?

Txapelketa taldeka egiten da: bi, hiru edo lau kideko taldeetan; denak, 16 urtetik gorakoak.

Izena emateko epea

Martxoaren 24ra arte.

Parte-hartzea

Txapelketan parte hartzeko: talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Bazkarirako txartelak: norbanako bakoitzak 15 euroan erosi beharko du txartela.

Ordutegia

11:00 Udaletxearen aurreko plazan.

15:00 Bazkaria, Ander Deuna ikastolan.

17:00 Finalaurrekoak eta finala, Ander Deunan.

Zelan izena eman

Telefonoz: 618 574 445 / 695 774 015

Posta elektronikoz: esaera.zaharrak@aek.eus
jose-p@aek.eus edo aitor-f@aek.eus

Esaera Zaharren Txapelketa

Apirilaren 1ean jotatuko da Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa, 24. biderrez. Barikura arte izena eman daiteke.

Uribe Kostako AEK-k urtero antolatzen duen Esaera Zaharren Txapelketa apirilaren 1ean egingo da, zapa-tuan; eta ikasi beharreko 100 esaera zaharrez osatutako zerrenda prest dago

daborduko. Ohi den legez, txapelketan parte hartzeko beharrezkoa da taldea osatzea; bi, hiru edo lau lagunekoa. Hilaren 24a baino lehenago bete beharko dute taldeek izen-ematea, eta talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Txapelketa egunean bazkaria ere antolatuko dutenez, horretan parte hartzeko, norbanako bakoitzak txartela erosi beharko du 15 euroan. Txapelketaren egunean, 11:00etan ipini dute hitzordua, Sopelako udaletxearen aurrean. Goizeko txandan, tabernaz taberna ibiliko dira, ALBEk ipinitako bertsoek ostentzen duten esaera zaharrak igartzeko asmoz. Bazkalostean jotatuko

dute finalaurrekoa eta finala. Horietan, Maddi Sarasuak eta Xumai Muruak jardungo dute bertsotan.

Sariei dagokienez, irabazleek aste-buruko egonaldia eta afari bat lortuko dituzte; bigarrenek, bainuetxe batean egonaldia eta afari bat; eta 6. posturainokoentzat, afari bana. Sari bereziak ere badira: kiniela-saria, esaera berria asmatuko duenarentzakoa, eta abar. ◀

Hitza emanda



BatZuk

*BAT etxean ausartzen
bada aritzera...
ZUK atera ezker
hizkuntza kalera...
BATZUK kuadrillan hasten
bagara gainera...
Baietz korrika egin
pauso bat aurrera!*



**ARRATE
ILLARO
ETXEBARRIA**
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Antzerkirako plana, aste-akabuan, Berangon

Berango Antzokiak antzezlan bi eskainiko ditu asteburu honetan; bata, zapatuan, bestea, domekan. Martxoaren 25ean, arrastiko 07:00etan ipini dute hitzordua, *Kaput* lanaz gozatu ahal izateko. Berba bako bidaia proposatuko digu Ganso&Cia konpainiak, Cecilia Paganiniren laguntzagaz Gorka Gansok gidatutako egitasmoa da hori. Zoro bi eta auto bat dira *Kaputeko* bidaideak; konpainia-koen esanetan, «barretik eta optimis-motik gerren drama unibertsalera eta bere zeharkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hunkigarri, urratzaila eta zentzugabekoa da». Adin guztiei begirako ikuskizuna da, eta sarrerak 3 euroan egongo dira salmentan.

Hurrengo egunean, hilaren 26an, euskarazko *Baserrian amets* antzezla-na ikusi ahal izango dute Berangoko antzokira hurreratuko direnek. Eida-be & Balea Musika Ideiak taldearen lanak Amets du protagonista, «patatak

Egitaraua

Martxoak 25, zapatua

19:00 *Kaput* antzezlan. Adin guztientzat. Berba bakoia. Berango Antzokia. Sarrera, 3 euroan.

Martxoak 26, domeka

18:00 *Baserrian amets* lana. Umeentzat. Euskaraz. Berango Antzokia. Doan.

eta arrautzak dendatik datozela» uste duen neskatoa; amamagaz baserrian emango du aste-akabua, eta «baratzea eta abereak ezagutuko ditu bertan. Garaian garaiko eta bertakoa jan egin behar dela ere ikasiko du», antzerki-taldeak azaltzen duenez. Horrenbestez, Aiora Sedanok antzeztuko duen lanak «umeei kontsumo arduratsua-ren eta gertutasunaren onurak erakutsi» gura dizkie. 3 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako antzerki-lana da, eta Galder Pérezek idatzi du. Sarrera doakoa izango da. ◀

Orain dela 80 urte 3Dn grabatutako *Euskadi* filma emango dute Azebarrin, apirilaren 4an

Euskal Herrian, 1936an, eta 3Dn grabatu zuen René Le Hénaff zinemagileak *Euskadi*. Izan ere, lan hori berezia da irudiak jasotzeko erabili zuten teknika horregatik, eta orain dela gutxira arte bazenik ere ezagutzen ez zelako. EHUKo Nor ikerketa-taldeko Josu Martinezek topatu du filma, Frantziako zinema-artxiboetan. Bilboko Loraldia festibalak lortu ditu lanaren proiektzio-eskubideak, eta NOR taldekoakaz batera aurkeztu zuen martxoaren hasieran. Euskal Herriaren gaineko lehenengo 3Dko filma izateaz gainera, garai hartan teknika hori erabiliz egindako gutxi batzuen arteko bat da *Euskadi*; berez, Louis Lumièreren azken asma-kizunak ez zuelako arrakasta handirik izan. Edukiari dagokionez, Ipar Euskal Herriko paisaiak, kantuak eta dantzak jasotzen ditu 22 minutuko dokumentalak. Hori ikusi eta Martinezegaz berba egin ahal izango da apirilaren 4an, 19:30ean, Azebarrin, Algotan. ◀

Euskal idazleen liburuak berbabide izango dituzte, martxoaren 30ean, Sopelan eta Algortan

Uribe Kostako literaturazaleek aurrez aukeratutako liburuetan sa kontzeko saio bi izango dituzte, martxoaren 30ean, eguenean. Batetik, Sopelako Irakurzaleen Txokoak Peio Lizarralderen *Elur Bustia* eleberriaren inguruan berba egitea erabaki du. Saioa 19:00etan izango da, Kurtzio kultur etxean. Algortako kultur etxean, oster, Patxi Zubizarreta idazleak erantzungo die *Laranja bat zaborretan* bere lanaren gainean zaleek egingo dizkioten galderei. Egizuk ipini du hitzordu hori, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. Ekitaldia 19:30ean izango da; sartzea, doan. ◀

Kapulana bat zintzilik bertso-ikuskizuna, Plentziako kultur etxean, Miren Amurizagaz

Plentziako eta Gorlizko euskara-argenda bateratuaren barruan, *Kapulana bat zintzilik* bertso-ikuskizuna eskainiko du Miren Amurizak, Goñi Portal kultur etxean, apirilaren 7an, barikuan. Mozambikeko emakumeen oihak koloretsuak dira kapulanak; soineko moduan, umeei lepoan ipintzeko, jana batzeko edo etxeak apaintzeko erabiltzen dituzte. Emanaldian zapi horietako bat zabaldu eta bertan «gor-detako» kantuak, kontuak eta irudiak «aterako» ditu Amurizak; besteak beste, Eider Eibarren ilustrazioak baliatuko ditu. Emanaldia 18:00etan hasiko da; sarrera, doan. ◀



Irakurzaletasuna sustatzea da kanpainaren helburuetako bat.

Irakurri, gozatu eta oparitu!

Getxon eta Sopelan ere eskainiko dute Euskaltzaleon Topaguneak antolatutako ekimena, udal-liburutegien, zenbait liburu-denden eta Egizuren parte-hartzeari esker.

Aste Santuko koloniak, Bizarra Lepoanegaz

Getxoko Bizarra Lepoan euskaldunon elkarteak 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzako egonaldi irekiak antolatu ditu: Aste Santuko eta Pazko Asteko egunetan izango dira, Bapiruke egitasmoaren barruan. Denera, zazpi egun aukeratu dituzte, txangoak txango, Algortako Zabala eta Itzumbaltzetako Romo eskolan izango diren ekintzetarako; apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era egingo dituzte jolasak eta tailerrak. Ordutegiari dagokionez, egunero, 09:00etatik 13:30era edukiko dituzte jarduerak umeek, apirilaren 11n eta 19an izan ezik. Izan ere, egun horietan bietan txangoak egingo dituzte, eta 17:00ak aldera itzuliko dira neska-mutilak. ◀

Xehetasunak

Noiz eta non?

Apirilaren 10etik 21era arte, Zabala (Algorta) eta Romo (Itzumbaltzeta/Romo) ikastetxeetan.

Norentzat?

5 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

Prezioa

Bizarra Lepoaneko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, 55 euro; eta gutxieneko errenta Getxon jasotzen dutenek, 10 euro.

Izen-ematea

Bazkideek, martxoaren 27an eta 28an; bazkide ez direnek, martxoaren 29an eta 30ean.

info+: www.bizarralepoan.eus

Lea Artibai izango du arerio Uribe Kostak

Daborduko hasi da Bizkaiko Taldekako Bertsolari Txapelketa. Besteak beste, Akerbeltzen antxumak (Markina-Xemein), Leioatik begira (Leioa) eta Otsoko (Busturialdea) taldeen arteko kanporaketa jokatu zen, Markina-Xemeinen, martxoaren 18an, zapatuan. Saio horretan, etxeko taldeak lortu zuen finalaurrekorako txartela, leioaztarrak eta busturialdearrak kanpoan utziz. Egun berean, Bratva (Durango), Ulutiko Intxahulak (Algortako Bertsolari Eskola) eta Santutxuko Bertso Eskolaren arteko kanporaketa jokatu zen. Kasu honetan

ere etxeko taldeak lortu zuen hurrengo faserako txartela. ALBEko kideek osatuko beste talde batek, Gora Tangora! izenekoak, apirilaren 2an izango du norgehiagoka, Larrabetzun; uribekostarrek Itallen eta Bagenki taldeak izango dituzte aurrez aurre. Bestalde, Bertsolari Gazteen BBK Txapelketaren finalaurrekoa martxoaren 28an jokatuko du Uribe Kostak, Uribe Butroeko taldearen aurka. Izan ere, azken horiek nagusitu zitzaizkien Lea-Artibaiko bertsolari gazteei, Markina-Xemeingo kultur aretoan izandako kanporaketan, martitzenean, martxoaren 21ean. ◀

Maiatzaren 31ra arte, Euskal Herriko 52 udalerritan egingo dute aurren *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina. Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako ekimenaren helburuak dira irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, «euskarazko literatura eta herrietako liburutegiak ezagutaraztea». Kanpaina hori orain dela 11 urte ipini zuten martxan. Uribe Kostan egitasmoa aurrera eramateko bat egin dute Egizu euskartaldeak, Getxo eta Sopelako udalek, eta udalherri bietako liburutegiek. Hala, udal-liburutegietan maileguan hartutako euskarazko liburu bat irakurtzearen truke, erosketa-txeke bat jasoko du irakurleak; horretarako, irakurketa-fitxa erraz bat bete beharko du. Txeke horren bitartez, irakurleak gura duen liburua erosteko %35eko beherapena lortuko du. Getxo udalerrian, Algortako Elkar, Areetako Bolibar-Elordui edo Itzumbaltzeta/Romoko Gobelaurre libu-

ru-dendetan egongo da beherapenerako aukera hori, ekainaren 10era arte. Sopelan, Dimples liburu-dendan lortu ahal izango dira beherapen horiek. Horrez gainera, apirilean eta maiatzaren akabuan, 30 euroko erosketa-txeke bana zozkatuko dute, hilabete horretako parte-hartzaile guztien artean.

Hiru pauso

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pauso emango dira parte hartzeko: lehenengo pausoa irakurtzea da; euskaraz irakurtzea, beren-beregi. Horretarako, euskarazko edozein liburu maileguan eska daiteke, liburutegian. Liburua irakurri ostean, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat betetzea beharrezkoa da: zein liburu irakurri dugun, zer iruditu zaigun... Fitxa hori beteta, liburutegian erosketa-txeke emango dio irakurleari. Azken pausoa da liburua oparitzea lagun bati, senide bati, edo norbere buruari. ◀



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN
Emak-Umea eta Pertson-Ona

Irrintziaren Oihartzunak (L)loraldian

Emakumearen eguna. Udaberria. Loraldia. Hirukote aparta dakargi gu martxoak. Loraldi horren barruan lore bat nabarmendu nahiko nuke baina. Emakume batek beste emakume bati eskaintako lore bixia; *Irrintziaren Oihartzunak* izena duen pelikula. Nor da emakume hau? galdera ageri da filmaren kartelean. Erantzuna Iratxe Fresnedak ematen digu bere pelikulan. Mirentxu Loyarte, euskal zinemagintzan aitzindari izandako zinemagile ahaztua. Filma Zinemaldian estreinatu zen, baina azken boladan loraldia bizi du eta aretoz areto dabil. Hurrengo hitzordua martxoaren 30ean du, Loraldian. Irrintziak oihartzun handia izan dezala! ◀



Kirola, aukeran

Aurten ere, Getxoko errugbi-eskolak 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzako campusa prestatu du. © GETXOKO UDALA

Getxo udalerriko kirol-klubek 14 kirol-campus eskainiko dituzte datorren Aste Santuan. Daborduko informazioa eskatu eta izen-ematea bete daiteke.

Getxoko zenbait kirol klubek, Getxo Kirolak udal-erakundeagaz elkarlanean, 14 kirol-campus eskainiko dituzte Aste Santuan. Campus horietan, 3 eta 18 urte bitarteko eskola-umeek eta gazteek aukeran izango dituzten kirol-jarduerak hauek dira: gimnastika erritmikoa, askotariko kirola, saskiba-

loia, igeriketa, tenisa, futbola, irristaketa, xakea, boleibola eta errugbia. Aipatutako kirol-jarduera horiek denak udal-kiroldegietan egingo dira: Faduran, Gobelan eta Andra Marin.

Aurtengo berezitasunak

Getxo Kirolak udal-erakundeko arduradunen ustez, «aurten ondutako es-

kaintzaren barruan bi dira, batez ere, nabarmentzeko campusak: xakearena, Getxo Xake Klubak antolatzen duena, xakea tresna pedagogiko eta sozializatzaile gisa hartuta; eta Haszten elkarteak proposatu duen kirol-gokitu inklusiboaren campusa».

Kirol-campusak eskolako oporraldian antolatuko dira, «herriko neska-mutilei aisialdirako aukera osasuntsuak eskaintzeko eta, aldi berean, gurasoei laguntzeko familia eta lanbizitza bateragarria egiten», udal-iturriek azaldu dutenez. ◀

Kirol-campusak

Saskibaloia

657 773 523 / getxosaski@gmail.com

Igeriketa eta askotariko kirola

663 871 318 / getxoibke@gmail.com

Tenisa eta askotariko kirola

685 751 688 / tenisplayasdegetxo@gmail.com

Tenis-teknifikazioa

609 400 742 / tenisfadura@gmail.com

Futbola eta kirol ugari, Faduran

946 085 933 / 664 570 994 / 662 940 436
admin@kiroletansport.info

Futbola, Faduran

615 982 663
campusgetxofutbola@gmail.com

Gimnastika erritmikoa eta askotariko kirola

685 545 032
club_ritmica_getxo@hotmail.com

Futbola, Gobelan

657 268 606
arenasromocampus@gmail.com

Boleibola

654 738 779 / campus-voleigetxo@gmail.com

Irristaketa, Gobelan

664 570 994
ander.i@clubpatinajelineagetxo.com

Irristaketa, Andra Marin

615 501 624 / info@cpsshowgetxo.com

Xake-jokoa

688 677 874 / info@damagaztea.com

Egokitutako campus inklusiboa

699 609 588 / hasztenkirola@gmail.com

Errugbia eta askotariko kirola

688 874 714 / getxorugby@getxorugby.org

info+: hiruka.eus/kirolak

Egonaldiak, Goikomendi hipika-klubean

Lemoizko Andra auzoan, Goikomendi hipika-klubak egonaldiak antolatuko ditu datorren Aste Santuan, apirilaren 9tik 23ra bitartean.

Klubak jakinarazi duenez, kanpamentu horretan parte hartu ahal izango da egun soltetan, hiru egunetan edo hasieratik amaierara arte. Parte-har-

tzaileek aukeran izango dituzte hainbat ekimen: egun erdiko ekitazio-taillerak, janleku-zerbitzua eta egun osoko ekitazio-jarduerak, edo Goikomendin bertan lo egitea ere bai. Interesdunak klubagaz harremanetan ipin daitezke telefono edo Interneten bitartez. ◀

info+: 649 385 950 / Goikomendi.com

Zaldien inguruko marrazki-lehiaketa

Euskal Hipika Federazioak zaldien gaineko marrazki-lehiaketa antolatu du. Ekimena zuzenduta dago 12 urtekoei edo adin horrez azpikoei. Marrazkiek originalak izan behar dute, eta Din A4 tamainakoak. Formatu digitalean aurkeztuz gero, 1240 x 1745 pixel izan behar dute. Lanak

ohiko postaren edo posta elektronikoa bitartez bidal daitezke martxoaren 31ra arte; izen-abizenak, adina, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa aipatzea beharrezkoa da. Irabazlea apirilaren 7an jakinaraziko dute. Saria ekitaziorako hiru eguneko bonua da. ◀

info+: 944 734 895 / hipica@fvh.org

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Algorta

Telletexe 1
94 460 27 41

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Lointek nagusitu da Tafallan



Belén Lópezek ihes eginda egin zuen lasterketa ia osoa. © LOINTEK TEAM

Lointek Team taldeak ondo baino hobeto hasi du Euskaldun txapelketa, garaipen lortu du eta. Belén López txirrindulari cadiztarra izan zen protagonista pasa den domekako etapan, Tafallan; hainbat ahaleginen ostean, bakar-bakarrik ihes egin zuen txirrindulari-taldetik, eta tropelaren eta bere arteko aldea mantentzea lortu zuen. Hala, besoak altxatuz sartu zen Tafallako helmugan.

Atzean, Lointek taldeak mendeen hartu zituen erasoak, tropela apurtzeko guran egindakoak. Lehenengo etaparen ostean, López sailkapen nagusiaren buru da, Lointek taldekako liderra da eta talde laranjak erabat hartuta dauka 23 urtez azpikoen podiuma:

Alicia González, Ziortza Isasi eta Alba Teruelegaz. Tafallara sasoian heldu dela azaldu du Lópezek: «oso pozik nago denboraldi hasieragaz. Belgikako lasterketek on egin didate, sasoia aztertzeko eta prestaketa egokitzeko». Hala ere, onartu du bere garaipena talde-lana izan dela: «ondo baliatu ditugu gure indarrak: lasterketa hasieratik apurtu behar genuen, gure alde ipintzeko, eta horrela egin dugu. Gaur nik irabazi dut, baina beste edozeinek irabaz zezakeen ihes egin izatekotan, tropelean talde osoak egindako lanari esker».

Bestalde, Setmana Ciclista Valenciana lasterketari dagokionez, Cristina Martínezek irabazi zuen valentziar onenaren maillot gorria. ◀

Jolasetak hirugarrenez irabazi du Ipar Liga

Jolasetako gizonetako talde nagusiak Ipar Liga irabazi du patin-hockey modalitatean, hirugarren urtez jarraian. 8-3 nagusitu zitzaion Santanderreko Tenis elkarteari, joan den zapatuan. Hala, berriro ere, Negurikoa brontze-kategoriako talderik onena

da Hego Euskal Herrian, Kantabrian, eta Gaztela-Leongo iparraldean. Daborduko, liga amaitzeko hiru partida falta badira ere, Víctor Sainzen eta Fernando Sierraren taldeak matematikoki ziurtatu du garaipena, 22 partida jarraian irabazi ostean. ◀

«Letworld» film laburra aurkeztu du Canalesek

Leticia Canales Bilbao surflari sopeloztarrak *Letworld* film laburra aurkeztu zuen Sopela Surf Films Sessions-en. *Letworld* bideoan, 22 urteko gazteak bere alderik basatienari begiratu dio, denboraldi honetan izan dituen lesioak ahaztuz. ◀



Kepa Aceroren lehen bidaia, lesionatu zenetik

Datorren zapatuan, Kepa Acero surflari algortarrak berbaldia emango du Bartzelonan, Surf-city jaialdian. Acerok bere esplorazio-surfaren gainean hitz egingo du. Lehorrean bada ere, algortarrak bere lehenengo bidaia egingo du, urtarrilaren 2an Mundakan lesionatu zenetik. ◀



Acero «pozik» dago, Bartzelonara begira. © K. A.

Garaipena lortu du waterpolo-selekzioak

Historian bigarren aldiz eta 16 urteren ostean batu zen Euskal Herriko emakumezkoen waterpolo-selekzio seniorra, pasa den aste-akabuan. Portugalgo selekzioa izan zuten arerio, 2001ean jazo legez. Porton jokatu zen norgehiagoka 10-12 irabazi zuten euskal herritarrek. Vanesa

Freire selekzioaren kapitain eta Leioa Waterpoloko jokalaria eskatu du «selekzioari jarraitutasuna ematea». Freirez gainera, selekzioagaz lehiatu ziren Leioa Waterpoloren beste bost jokalaria honakoak izan ziren: Leire Sarasola, Ane eta Marta Jaime, Ane García eta Uxue Hernández. ◀



ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIAK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service

hiruka Orreko hiru taldeak

EZ GALDU ASTE SANTURAKO ZURETZAKO PRESTATU DITUGUN AISIALDI PLANAK

SOPUERTA ABENTURA eta BIRD CENTER bisitatzeko SARREREN ZOZKETAK familia osoarentzako!

Ikusi zenbaki honetako gehigarria.

www.hiruka.eus

Sopelan, herri-lasterketa prest



Antolakuntzak ohartarazi du ordu-aldaketagaz kontuz ibiltzeko. © MUNARRI ATLETISMO-TALDEA

Hamabosgarrenez, Sopelako Herri Lasterketa antolatuko du Munarri atletismo-taldeak. Hitzordua domekan ipini dute, hilaren 26an; baina, izen-ema-tea egunean itxiko dute, 20:00etan. Inskripzioa antolatzaileen webgunean bete daiteke. Modu berean, honako lekuetaraino ere jo ahal izango da: Kurtzio kultur etxea (18:00etatik 20:00etara), Algortako Torrene kaleko Kantxa Kirol Moda eta Bilboko Euskalduna kaleko Deportes Bikila denda. Ohi den legez, elkartasun-ekimena izango da atletismo-proba; hala, batuko duten diru dena aprendeTEA elkarteari emango diote, Autismo Espektoaren Nahasteak eta Asperger dituzten Fami-

lien Prestakuntza eta Aisiaren Sustapenerako Elkarteari, alegia. Hori dela eta, euro biko inskripzio-kuota ezarri dute senior eta beterano mailakoen-tzat; euro banako kuota, gainerakoen-tzat. Dortsala udaletxean jasotzeko unean ordainduko da. Proba goizeko 10:30ean hasiko da, Sopelako udale-txearen aurreko plazan. Lehenengo, 400 metroko lasterketari ekingo diote parte-hartzaile txikienei, 2013an eta handik aurrera jaiotako neska-mut-lek. Gero, hamar minutuan behin ir-tengo dira hurrengo mailakoak; hu-rrenez hurren 800, 1.200, 1.500, 3.000 eta 7.700 metro egiteko. Ehunka par-te-hartzaile espero dituzte. ◀

info+: Munarri.blogspot.com

Getxoko kirol-elkarteak, formakuntza jasotzen

Getxo Kirolak udal-erakundeak prestakuntza-programa bat antolatu du udalerriko kirol-klubentzat. Kirol-elkarteen kudeake-tan eta administrazioan arazoak sortu ohi dituzten gaiak aztertzeko progra-ma da, eta sei jardunalditan egingo

dute klubek. Horietan, taldeek euren eguneroko beharrea dauzkaten za-lantzak, kezkak eta ardurak mahai-gainera ditzakete. Jardunaldiotan, in-formazioa eta prestakuntza teorikoa zein praktikoa eskainiko dizkiete zen-bait adituk. ◀



«Kirol-klubaren funtzionamendua» goiburuagaz egin dute lehenengo saioa. © GETXOKO UDALA

Bidaideak Bilbao BSR taldea, Euroligan tinko

Gurpil-aulkiko saskibaloiko Euroliga 2ko aurreneko fasea jokatu zen asa diren martxoaren 10ean eta 11n, Bilboko Txurdinagako kiroldegian. Bertan 5 talde lehiatu ziren azken fa-serako txartel bakarraren lehian, eta txartel hori Bidaideak Bilbao BSR tal-deak lortu zuen, jokaturako lau parti-dak irabazita. Talde horretan jokatzen du Asier García Pereiro saskibaloi-joka-lari getxoiztarrek. Azken fasea apirillean jokatu da, Okzitaniako Tolosan. Au-rreneko fasean, Bilboko taldeak jokatu-tako lau partidak irabazi zituen. BSRko Joshua Ture izendatu zuten Euroligako bost jokalaria onenetarikoetako bat. ◀

Estatukoan podiumera igo dira getxoiztarrek

Julen Barreras, Xabier Pereda eta Ekaitz Pintado karateka getxoiztarrek irabazi zuten brontzezko domina Espainiako karate Txapelketan, Albace-ten, pasa den martxoaren 12an. Getxoiz-tarrek taldekako Kata modalitatean lortu zuten domina, senior mailan, tal-de valentziarragaz berdinduta. Euska-diko selekzioaren ordezkarien artetik, Barrerasesk, Peredak eta Pintadok ba-karrik lortu zuten podiumera igotzea. Halere, Kumite modalitateko Iratxe Larrañaga, Diana Fernandez, Unai eta Lander Orbea eta Gonzalo Vasco kirolari bizkaitarren ahalegina nabarmen-du zuten Bizkaiko karate-federazioak. ◀

David Movillak bere kaleratzea salatuko du

David Movilla entrenatzaile itzu-baltzetarrek bere kaleratzearen aurkako salaketa ipiniko dio Barakal-do futbol-klubari. Aurretik, Orlando Saiz klubeko presidenteak leporatu zizkion «bere eginkizunetan neurria gainditzea», klubeko «beste behargin batzuen aurkako salaketa larriak eta begirunerik eza» agertzea eta «Bara-kaldoren irudian negatiboki eragitea». Horregatik, «nire ohoreari eta lan-es-kubideei eraso egin dietela», salatu du Movillak, klubaren zuzendaritzak ez baitio akusazio horietatik defendatzen utzi, ahalegindu bada ere. Klubari es-kerrak eman dizkio beste denagatik. ◀

Xabi Sanchok gidatuko du Leioako oinarria

Xabi Sancho da Leioa Kirol Elkar-te-ko oinarri-futboaren zuzendari be-rria. Aurretik, Sanchok behar egin du Barakaldo, Retuerto eta Sestao River futbol-taldeetan. Eskarmentua dauka entrenatzaile eta prestatzaile gisa. Jo-kalariak erakartzen ere jardun du. Ses-taon, eskola-futbola eta oinarri-futbola koordinatu zituen. Gainera, Sanchok Leioako talde baten ardura hartu zuen Retuertoren beharrea zegoenean, Isus-ko Loroñogaz batera. Gaur egun, Lo-roño klubeko koordinatzaile nagusia da. Fernando Quintanilla Txirrik utzita-ko hutsunea beteko du Sanchok; Rea-lera joan delako Quintanilla. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



hiruka
zaitez!
Urtean
35€
baino ez
Trukean:
zozketak,
sariak ia astero,
astekaria eguaztenero...

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila ugariz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Kultur Leioari esker, 5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu, Kukai taldeak apirilaren 5ean emango duen kontzertuaz gozatu ahal izateko.

Sarrerak lortu gura badituzu, martxoaren 30a (eguna) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Martxoko saria
Bingen Ametzagaren
«Itsaso aurrean» liburua

Bizarra Lepoan elkartearen ekimenez, hilabete honetako sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Parte hartu martxoaren 31 baino lehenago.



Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bitartez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitatea helarazteko. Bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

8	6		3			9		
						2		
					5			4
							7	
	2	1	6		8			
6					9		5	1
		9	8					6
		3	4		2			
	7					2		

Soluzioa

8	2	3	1	6	5	9	7	4
7	6	5	2	9	4	3	8	1
9	4	1	7	3	8	6	5	2
1	5	8	6	7	2	4	3	9
6	3	4	8	5	9	1	2	7
2	7	9	3	4	1	8	6	5
7	9	7	5	8	6	2	1	3
3	8	2	9	1	7	5	4	6
5	1	6	7	2	3	7	9	8

+ Guardiako farmaziak, hilaren 23tik 29ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Zapatuan, 09:00-14:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Aitz-gane kalea, 1. 946 680 153. Martitzenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik eguazteneko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga kalea, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egutero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Eguenean, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egutero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egutero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal k., 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 10:00-13:30.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

HORMAECHEA. Neguriko etorb., 15. NEGURI. 944 911 557. Domekan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00; egutero, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

SÁNCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802. Domekan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Astelehenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egutero, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Hirukira oleretan

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:




Elurretan

Hamabi biribil hauetatik bi besterik ez dira eskumako irudi handiari dagozkionak. Zeintzuk dira?



Bakoitzari berea

Hondakin hauek (kristalezko botila, papera eta plastikozko botila) birziklatu egiten dira; baina, horretarako, ontzi egokian utzi behar ditugu. Bakarra helduko da behar duen lekura. Zein?



Arrotzak

Okindegi-gozotegietan saltzen ez diren zortzi elementu daude hemen. Zeintzuk dira?



IspiluaRen aurkean

Pellozireren eta ispiluko bere islaeren artean zazpi desberdintasun daude. Zeintzuk dira?





HandiTiK TxikiRa

Ordna itzazu panpina errusiar hauek tamainaren arabera: handiena lehenengoa izango da, eta txikiena, seigarrena.



Sodokua



Osatu sudoku biotako lauki zuriak: batean, figura geometrikoak marraztuz; bestean, zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Akorduan izan bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, ilara eta azpilauki berde bakoitzeko.

ITzala

Zein da karramarro honi dagokion gerizpea? Bakarra da zuzena.



Lehiaketa: Non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

SARIA

**4 liburu
zozkatuko
ditugu**



«Martin, Lea eta ganbarako liburu magikoa» lanaren lau ale dauzkagu, hirukalagun txikienen artean zozkatzeko.

Bat gura baduzu, apirilaren 3a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Mundukatuak

Jocelyn Bayangat Natividad urdanetarra

«Arrozezko tagliatelle-k bizitza luzatzen dute»

Lamiakoztarra da Jocelyn Bayangat Natividad, baina Areetan bizi izan da azken urteotan. Euskal Herrira 1999ko ekainean heldu zen, Urdanetatik; Filipinetako hiri horrek euskal jatorriko izena du, argi eta garbi.

Uribe Kostan zen ordurako bere ahizpa, eta berak lortu zion lan bategaz etorri zen, kontratua Filipinetan sinatuta. Lana eman izana asko eskertzen dio Bayangatek Neguriko familiari; «nire sendia da; inoiz ez naute etxe-langilezat tratatu, jendearen aurrean etxekotzat aurkeztu naute. Familia ona da eta asko lagundu nau». Zortzi urtean egon zen eurentzat lanean. Behar hori utzi eta sukaldaritzan hasi zenean, Bayangatek familiagaz harremana mantendu zuen. Familia hori eta bere ahizpa dira bere babes nagusiak bere ustez. Ahizpa bakarrik ez, familia bereko 50 bat kide daude gaur egun Uribe Kostan, beharrean edo ikasten,

eskualdean jaiotakoak asko baitira. Hala, Bayangatek hemen egokitu du bizitza: ezkontuta dago, etxea erosi du Lamiakon, eta alaba ikasten dauka, euskaraz; «Janire deitzen da, bera euskal herritarra da» azaldu du, harro.

“ Sukaldaritzan jarduteko grina handia daukat eta gehiago ikasi gura dut ”

Gainera, kultur bizitza handia egiten du Getxoko Sikap elkarte filipinarrean. Zuzendaritza-taldean dihardu azken 8 urteotan, eta orain dela 3 urtetik elkar-terean presidentea da.

Sukaldaritzan eskarmentatu handia duenez, Filipinetako adoboa eta arrozez egindako tagliatelle-ak probatzeko gomendatu du. Urtebetetzeetan,

ezkontzetan eta ospakizun garrantzitsuetan ezin dira falta arroz-tagliatelleak, ohiturak dioelako «bizitza luzatzen dutela». Bestalde, gogorarazi du Filipinetako dietaren oinarria arroza dela: «gosarian, eguerdian, eta gauean». Jakiakaz batera, koko-ura eta irabiakiak aholkatu ditu, «nik ez dudalako alkoholik edaten». Filipinetaraino bisitan joan gura dutenei Urdanetatik hurbil dauden hondartzak gomendatu dizkie. «Gainera, pasealeku berriak egin dituzte, Internetetik begira nabil eta hainbat leku ia ezagutu ere ez! Iaz joan nintzen eta ikaratu egin nintzen, zein polita dagoen dena!». Urdanetan lege, Areetan ere ospatzen dute Filipinetako Independentziaren Eguna, ekainaren 12an. Bayangat harro dago jaioterriaz, baina pozik eta eskertuta dago hemen, «etorri nintzenean besoak zabalik hartu nindutelako» eta «jendearen gehiengoa ona delako». ◀

NOR DA

Nongoa

Urdaneta (Pangasinan, Filipinak).

Adina

49 urte.

Zertan dabil

Gaur egun, ostalaritzan lan bila dabil. Aurretik, etxe-langilea izan da 8 urtez, Negurin, eta sukaldaritzan jardun du 12 urtez, Itzumbaltzeta/Romon.

Ikasketak

Emagintza, Filipinetako Osasun-zientzien Unibertsitate-eskolan.

Noiztik Euskal Herrian

1999ko ekainean heldu zen.

NONGO DA



Lurraldea

Filipinak.

Azalera

300.000 km².

Hiria

Urdaneta, Pangasinan probintzian, Luzon uhartean.

Biztanleria

132.940 pertsona.


Hizkuntzak

Tagalo edo filipinera da hizkuntza nazionala. Halere, ingelesez ikasten dute hezkuntza-maila guztietan, tagalo ikasgaia dela. Filipinetako beste 181 bertoko hizkuntzetatik 19k «eskualde hizkuntza» gisako ezagutza ofiziala daukate, baina hezkuntzatik baztertuta daude. Pangasinan lurraldean, pangasinan eta ilocano dira jatorrizko hizkuntza nagusiak.

Dirua

Filipinetako peso.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua